- Arropak udal egoitzan bertan garbitu, lisatu eta konpondu behar dira, edo, bestela, egoitzaren kudeaketa edota ustiapena adjudikatzen zaion enpresak egingo ditu lan horiek, bere baliabideak erabilita zein beste batzuk azpikontratatuta. Ikuzketa-prozedurak jantzien ezaugarriei egokituko zaizkie, garbi eta ondo zainduta egon daitezen.
- Zentroa arduratuko da erabiliaren erabiliaz hondatzen diren arropak baztertu eta berriak erosteaz, erabiltzaileen kargura. Oinetakoak ere ondo zainduta eta garbi egon daitezen arduratuko da.

- La ropa estará debidamente marcada de forma inteligible y en sitio bien visible a fin de garantizar, en todo caso, el uso exclusivo por la persona propietaria.
- El cambio de ropa interior de las personas usuarias se efectuará diariamente, o si fuera preciso con mayor frecuencia. Respecto de las restantes prendas se observará la periodicidad necesaria.
- El lavado, planchado y repasado de la ropa deberá efectuarse por la residencia municipal o, en su caso, por la empresa adjudicataria para la gestión y/o explotación de la misma, con medios propios o mediante subcontrata. Los procedimientos de lavado se ajustarán a la tipología de las prendas a fin de garantizar su higiene y buen estado de conservación.
- El centro velará para que se renueven, con cargo al o la residente las prendas deterioradas por el uso. Igualmente, cuidará de que el calzado se mantenga en condiciones adecuadas de conservación y limpieza.

3.3. <u>Ohe jantziak, mahai jantziak eta bainukoak:</u>

- Zerbitzuaren barruan dago erabiltzaileak egoitza zentroko ohe jantziak, mahai jantziak eta bainukoak erabili ahal izatea.
- Ohe jantziak behar den guztietan aldatuko dira, astero gutxienez, bai eta erabiltzaile berria sartzen den bakoitzean ere. Gauza bera egingo da eskuoihal, ezpainzapi, zamau eta gainerako arropa zuriekin.
- Udal egoitzak egoitza zentroko arropa horiek guztiak behar bezain sarri berrituko ditu, erabiltzeko moduan egon daitezen beti.

3.3. <u>Ropa de cama, mesa, aseo:</u>

- El servicio incluye la utilización por la persona usuaria de la ropa de cama, mesa y aseo del centro residencial.
- La muda de cama se efectuará siempre que lo requieran las circunstancias y, en todo caso, semanalmente, así como cada vez que se produzca un nuevo ingreso. Con la misma periodicidad se cambiarán las toallas, servilletas, manteles y demás lencería.
- La residencia municipal renovará este tipo de ropa del centro con la frecuencia necesaria para que se mantenga en condiciones adecuadas de uso.

3.4. <u>Zaintza pertsonalari eta kontrolari eta babesari dagokienez:</u>

- Zaintza pertsonala:

3.4. <u>En relación con el cuidado personal, con el control y protección:</u>

- Cuidado personal:

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 5Q9S-1RED-MVTI-MU4R
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

o Egoitzan bizi direnei garbitasun pertsonala bermatu behar zaie, eta horretarako kasu bakoitzean behar den laguntza eman.

o Garbitasunerako tresna pertsonalak (orrazia, hortz-eskuila, aitzurra edo bizarra egiteko makina, eta antzekoak) erabiltzailearen kontura izango dira.

o Garbitasunerako produktu arruntak (xaboiak, koloniak, hortzetako pasta, xanpua, gela, etab.) udal egoitzak jarriko ditu. Erabiltzaileak aukeratzen dituen marka edo motetako produktuak beraren kontura izango dira.

o Arropak jantzi eta eranzteko, garbiketa egiteko, ohean sartzeko eta eguneroko beste edozer gauza egiteko gaitasuna murriztuta duten erabiltzaileei laguntza emango zaie.

o Egoitza zentroak jarriko ditu inkontinentziarako materialak, erabiltzaileak babesten dituen osasun sistemaren kontura edo, horrelakorik ezean, bere kontura edo, bestela, egoitzaren kudeaketaren edota ustiapenaren adjudikazioa jasotzen duen enpresaren kontura.

o Protesiak, ortesiak, gurpil-aulkiak eta lagungarri tekniko pertsonalak erabiltzaileen kontura izango dira; nolanahi ere, gerta liteke Osasun Sistemak batzuk bere estalduraren barruan hartzea.

- Kontrola eta babesa:

o Egoitza zentroko gune komunetan, erabiltzaileak nonahi ibil daitezke.

o Barne Araubideko Araudian zentroko gune komunak erabiltzeko arauak eta ordutegiak ezarriko dira, bai eta zentroan sartzeko eta irteteko ordutegia ere. Ordutegiak malguak izan behar dira, erabiltzaileen senideek bisitak egin ahal izateko.

o Deberá garantizarse el aseo personal de los/las residentes, prestándoles apoyo en el grado que sea necesario en cada caso.

o Los útiles de aseo de uso personal (peine, cepillo de dientes, afeitadora o maquinilla de afeitar y otros similares) serán a cargo de la persona usuaria.

o Los productos de aseo de uso común (jabones, colonias, pasta dentífrica, champú, gel, etc.) serán aportados por la residencia municipal. Serán a cargo de las personas usuarias aquellos productos de marca o tipos específicos por ellas preferidos.

o Se prestará la ayuda necesaria a las personas residentes que tengan autonomía limitada para vestirse, desnudarse, asearse, acostarse o cualquier otra actividad de la vida cotidiana.

o El material de incontinencia será aportado por el centro residencial, bien con cargo al Sistema de Salud al que se encuentren acogidas las personas usuarias o, subsidiariamente, a expensas de la propia residencia municipal o, en su caso, de la empresa adjudicataria para la gestión y/o explotación de la misma.

o Las prótesis, ortesis, sillas de ruedas y ayudas técnicas de uso personal serán a cargo de las personas usuarias, sin perjuicio de la cobertura que el Sistema de Salud correspondiente prevea en cada caso.

- Control y protección:

o Las personas usuarias gozarán de libertad de movimientos en las áreas de uso común del centro residencial.

o El Reglamento de Régimen Interior establecerá las normas y horarios a que deberá ajustarse la utilización de las dependencias comunes del centro, así como el horario de salidas y entradas del mismo. Deberá garantizarse la flexibilidad de horarios, para facilitar las visitas de las familias de las personas usuarias.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 5Q9S-1RED-MVTI-MU4R
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

o Erabiltzaileek behar dituzten babes eta kontrol neurriak ezarriko dira, batez ere inguruabar fisiko edo psikikoak direla-eta adinekoen osotasuna arriskuan egon daitekeen kasuetan.

o Udal egoitzak egoitza erabiltzen duten pertsonen irteerak kontrolatzeko beharrezko neurriak hartu beharko ditu.

- Laguntza geriatrikoa eta birgaikuntza:

o Erabiltzaile bat egoitzan sartzen denean, diziplina anitzeko azterketa eta ebaluazioa egingo zaizkio, eta horien emaitzen arabera berariazko arreta plana (AIP) prestatuko zaio. Plan hori Gizarte Ekintza Saileko Zentroetako Arreta Zerbitzuari bidaliko zaio.

AIPn, honako eduki hauek sartuko dira gutxienez:

a) Balorazio geriatriko integrala (arreta-esparru garrantzitsuak: psikologikoa, osasun- eta gizarte-arlokoak, eta eguneroko bizitzako jardueren ingurukoa).

b) Gaitasunen balorazioa: zer laguntza behar dituen, eta zer ohitura, lehentasun eta desio dituen.

c) Prebentzio- eta laguntza-arloko helburu zehatzak.

d) Helburuok lortzeko programak eta jarduerak.

e) Jarduera horien exekuzioa.

f) Aldizkako ebaluazioa, ikusteko ea noraino bete diren helburuak eta, beharrezkoa balitz, aldaketak eta helburu berriak planteatzeko.

o Espediente pertsonal batek egon behar du, honako hauek dituenak:

o Se establecerán las medidas de protección y control necesarias para las personas usuarias, especialmente en aquellos casos en que, por condicionamientos de índole física o psíquica de las mismas, puedan preverse situaciones de riesgo para su integridad.

o La residencia municipal deberá adoptar las medidas necesarias para controlar las salidas de las personas usuarias de la residencia.

- Atención geriátrica y rehabilitadora:

o Al ingreso de cada persona usuaria se llevará a cabo un estudio y evaluación multidisciplinar de su estado, en función de los cuales se elaborará un plan individualizado de atención (PAI), que deberá ser remitido al Servicio de Atención en Centros del Departamento de Acción Social.

En el PAI, se incluirá como mínimo los siguientes contenidos:

a) Valoración geriátrica integral (Áreas relevantes de atención: Sanitaria, Psicológica, Social y de actividades de la vida diaria

b) Valoración de capacidades, sus necesidades de apoyo, sus hábitos, preferencias y deseos.

c)Planteamiento de objetivos concretos en el ámbito preventivo y asistencia.

d) Determinación de programas y actividades para conseguir los objetivos.

e) Ejecución de dichas actividades.

f) Evaluación periódica de cumplimiento de los objetivos definidos y si es preciso plantear modificaciones y nuevos objetivos.

o Deberá existir un expediente personal que deberá contener:

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 5Q9S-1RED-MVTI-MU4R
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

a) Datu administratibo, sanitario eta sozial nagusiak.

b) Beharrizanen hasierako ebaluazioa.

c) Zainketa-plana.

d) Banakako Arreta Integraleko Plana (AIP).

e) AIParen jarraipen eta berrikuspena, plangintza horren jarraipen- eta berrikuspen-dokumentuak.

f) Hala badagokio, ebazpen judizialak, egoitza-zentroan ingresatzea onesten dutenak.

g) Hala badagokio, erabiltzailearen aurretiazko borondateen agiria.

Espediente hau Gizarte Ekintza Saileko Zentroetako Arreta Zerbitzuari eta Ikuskapen eta Kontrol Zerbitzuari bidaliko zaie, bertako langileek eskatuz gero. Horrela, erabiltzaileek jasotzen dituzten prestazioen egoera aztertzeko eta laguntzaren kalitatea kontrolatzeko jarduketak erraztuko dira.

o Osasun zentroetara lekualdatzea eta laguntzea, ez bada bidezko Osasun Sistemaren barruan sartzen, pertsona erabiltzailearen kargura izango da.

4. *Zerbitzu osagarriak.*

Udal egoitzak zerbitzu osagarriak eskaini ahal ditu, esate baterako podologia, ile-apaindegia, liburutegia, etab., erabiltzaileen arreta hobetzeko.

5. *Egoitzan bizi direnen onarpenak eta bajak*.

a) Los principales datos administrativos, sanitarios y sociales.

b) La evaluación inicial de necesidades.

c) El plan de cuidados.

d) El Plan de Atención Individualizado (PAI).

e) El seguimiento y la revisión del PAI, documentos de seguimiento y de revisión de dicha planificación.

f) En su caso, resoluciones judiciales, aprobando el ingreso en el centro residencial.

g) En su caso, documento de voluntades anticipadas de la persona usuaria.

h)

Dicho expediente será puesto a disposición del Servicio de Atención en Centros y del Servicio de Inspección y Control del Departamento de Acción Social, a requerimiento del personal de estos Servicios, con la finalidad de facilitar las actuaciones de seguimiento de la situación y control de la calidad asistencial de las prestaciones que reciban las personas usuarias.

o El traslado y acompañamiento a centros sanitarios, que no esté cubierto por el Sistema de Salud correspondiente, correrá a cargo de la persona usuaria.

4. *Servicios complementarios.*

La residencia municipal podrá incluir otros servicios complementarios, tales como podología, peluquería, biblioteca, etc., que redunden en una mayor atención a la persona usuaria.

5. *Admisiones y bajas de personas residentes.*

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 5Q9S-1RED-MVTI-MU4R
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Udal egoitzako zuzendaritzak behin betiko bajak eta aldi baterakoak gertatzen diren egunean bertan jakinarazi behar dizkio Gizarte Ekintza Saileko Zentroetako Arreta Zerbitzuari. Gizarte Ekintza Saileko Zentroetako Arreta Zerbitzuak eta udal egoitzako zuzendaritzak zuzeneko harremanak izango dituzte erabiltzaileen onarpenak, altak eta bajak direla-eta, bai eta erabiltzaileen egoitzako bizimoduari lotutako gainerako kontu guztietan ere.

La dirección de la residencia municipal comunicará al Servicio de atención en Centros del Departamento de Acción Social las bajas definitivas y temporales el mismo día en que se produzcan. El Servicio de Atención en Centros del Departamento de Acción Social y la dirección de la residencia municipal mantendrán una relación directa en materia de admisiones, altas y bajas de las personas usuarias y en cualquier otra cuestión relativa a las prestaciones objeto del presente convenio.

Gizarte Ekintza Saileko Zentroetako Arreta Zerbitzuak zehaztuko du bajen kalifikazioa, hau da, behin betikoak edo aldi baterakoak diren.

El Servicio de Atención en Centros del Departamento de Acción Social determinará la calificación de las bajas en definitivas y temporales.

<u>Behin betiko baja</u> gertatzen da erabiltzailea hiltzen denean, zerbitzuari uko egiten dionean edo aldi baterako baja behin betiko bihurtzen denean.

<u>Bajas definitivas</u> son las así calificadas a causa de fallecimiento o renuncia de la persona residente o por así devenir las bajas temporales.

<u>Aldi baterako baja</u> gertatzen da erabiltzailea oporretan joaten denean, ospitaleratzen dutenean eta antzeko egoeretan.

<u>Bajas temporales</u> son las así calificadas a causa de vacaciones, ingresos de las personas residentes en centros hospitalarios u otras circunstancias similares.

Aldi baterako baxa gertatzen denean, onuradunari plaza erreserbatuko zaio (kontzeptua: plaza okupatuta).

Las plazas declaradas bajas temporales, se mantendrán en reserva en concepto de plaza ocupada a favor de la persona beneficiaria de la plaza.

Egoitza zentroko prestazioen onuradunek plaza erreserbatzeko eskubidea izango dute zentrotik kanpora ematen duten aldietan, indarreko foru arautegian ezarrita dagoen bezala.

Las personas beneficiarias de las prestaciones del centro residencial tendrán derecho a reserva de plaza durante los periodos de ausencia del centro en los términos establecidos por la normativa foral vigente.

Hitzarmen honen ondorioetarako, honako hau hartuko da okupatutako plazatzat: Bizkaiko Foru Aldundiaren bidez erabiltzaileak okupatutako plaza hitzartua, edo aldi baterako baja dela-eta erreserbatutako plaza hitzartua.

A efectos del presente convenio se entenderá por plaza ocupada la plaza convenida que se encuentre ocupada por un ingreso de la Diputación Foral de Bizkaia, efectivamente o con reserva con motivo de baja temporal.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 5Q9S-1RED-MVTI-MU4R
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

6. *Barne araubidea.*

Egoitzak barne araubideko araudia eduki beharko du hitzarmen hau sinatzen denetik hilabete pasatu baino lehen. Erregelamendu horrek bat etorri beharko du Eusko Jaurlaritzaren eta Foru Aldundiaren dagozkion Dekretuetan xedatutakoarekin.

6. *Régimen interior*.

La residencia deberá contar, en el plazo máximo de un mes desde la firma del presente convenio, con un Reglamento de régimen interior que deberá adecuarse a lo previsto en los correspondientes Decretos del Gobierno Vasco y de Diputación Foral.

7. *Jardun onerako eskuliburua, jarduteko protokoloak eta gorabeheren liburua*.

Udal egoitzak konpromiso hauek hartu ditu bere gain:

a) Egoitza kudeatzeko erabiliko du Bizkaiko Lurralde Historikoko mendetasun-egoeran dauden pertsonentzat egoitzen foru zerbitzu publikoaren jardun onerako eskuliburua.

b) Langileek jarduteko bete beharreko protokoloak formalizatzea ditu, Euskal Autonomia Erkidegoko adineko pertsonentzako egoitza-zentroei buruzko uztailaren 30eko 126/2019 Dekretuan jasotako moduan eta epeetan.

c) Gorabeheren liburuan egunean edukiko du. Bertan zentroko erabiltzaileei gertatzen zaizkien osasun zein gizarte gorabehera guztiak ezarriko dira; datu hauek zehaztu behar dira: pertsona, gorabehera mota, gertatu den ordua, idaztohartu duen langilea eta, beharrezkoa bada, oharrak.

d) Erregistroak kudeatzea Euskal Autonomia Erkidegoko adineko pertsonentzako egoitza-zentroei buruzko uztailaren 30eko 126/2019 Dekretuan jasotako moduan eta epeetan.

Hori guztiori aplikatzekoa den araudiarekin bat etorrita.

7. *Manual de buena práctica, protocolos de actuación y libro de incidencias*.

La residencia municipal se compromete a:

a) Incorporar a su gestión el Manual de buena práctica del servicio foral de residencias para personas en situación de dependencia del Territorio Histórico de Bizkaia.

b) Formalizar protocolos de actuación en los términos y plazos recogidos en el Decreto 126/2019, de 30 de julio, de centros residenciales para personas mayores en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco

c) Cumplimentar un libro diario de incidencias, tanto de tipo sanitario como social, que se produzcan con relación a las personas usuarias del centro, con anotación expresa de la persona, tipo de incidencia, hora en la que se produce, trabajador o trabajadora que la anote y observaciones, en su caso.

d) Llevar Registros en los términos y plazos recogidos en el Decreto 126/2019, de 30 de julio, de centros residenciales para personas mayores en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Todo ello de acuerdo a lo previsto en la normativa que resulte de aplicación.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 5Q9S-1RED-MVTI-MU4R
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

EUSEBIO ALDEKOA EGOITZA

RESIDENCIA EUSEBIO ALDEKOA

Bizkaia foru aldundia diputación foral

Dokumentu horiek guztiak Gizarte Ekintza Sailaren eskura egon beharko dira Gizarte Ekintzako Sailak ezartzen duen moduan eta baliabideekin.

8. <u>Erantzukizuna.</u>

Bizkaiko Foru Aldundiak ez du inolako erantzukizunik izango, ez zibilik, ez administratiborik, ez penalik, egoitza zerbitzua egitean sortzen diren kalteak direla-eta.

9. <u>Indarkeria matxistaren prebentzioa, detekzioa eta arreta.</u>

Udal egoitzak neurriak ezarriko ditu zentroan bizi diren, lan egiten duten edo zentroa bisitatzen duten emakumeen aurka gerta daitezkeen indarkeria matxistako kasuak prebenitzeko eta artatzeko. Era berean, biktimei arreta integrala emateko jarduera-protokoloak ezarriko ditu, biktimen segurtasuna eta premiak lehenetsiz, betiere genero-ikuspegiarekin, intersekzionalitatea eta ahalduntze-printzipioa kontuan hartuta.

Era berean, zentroan sartzen diren eta sartu aurretik biktima izan diren emakumeei arreta berezia emango zaie, haien ahultasun berezia kontuan hartuta.

Nolanahi ere, esku hartzeko esparru orokorra Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren, baita EAEn emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimei ematen zaien arreta koordinatzeko erakundeen arteko III. Akordioa ere.

Todos estos documentos deberán estar a disposición del Departamento de Acción Social en el modo y con los medios que, en su caso, determine el Departamento de Acción Social.

8. <u>Responsabilidad.</u>

En todo caso, la Diputación Foral de Bizkaia estará eximida de toda responsabilidad civil, administrativa y penal por los daños que tengan lugar con ocasión de la prestación del servicio residencial.

9. <u>Prevención, detección y atención de violencia machista.</u>

La residencia municipal establecerá medidas para la prevención y atención de casos de violencia machista que pudieran darse contra mujeres que residan, trabajen o visiten el centro. Asimismo, establecerá protocolos de actuación para la atención integral de las víctimas anteponiendo la seguridad y necesidades de éstas siempre con perspectiva de género, teniendo en cuenta la interseccionalidad y el principio de empoderamiento.

De la misma manera, se dará especial atención a las mujeres que ingresen en el centro y hayan sido víctimas con anterioridad a su ingreso, teniendo en cuenta su especial vulnerabilidad.

En cualquier caso, el marco general de intervención es el establecido en el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres, así como en el III Acuerdo interinstitucional para la coordinación de la atención de víctimas de violencia machista contra las mujeres en la CAE.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 5Q9S-1RED-MVTI-MU4R
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Horretarako, indarkeria matxistari buruzko ezagutzak dituzten erreferentziazko langileak daudela bermatuko da, kasu horiek hautematen eta arreta ematen laguntzeko, bigarren mailako biktimizazioak saihesteko, bai eta eraso horiek justifikatzen, hutsaltzen eta/edo ikusezin bihurtzen dituzten egoerak eta iruzkinak saihesteko ere.

Para ello, se garantizará la existencia de personal de referencia con conocimientos sobre violencia machista que contribuya en la detección y colabore en la atención de estos casos, de cara a evitar victimizaciones secundarias, así como situaciones y comentarios que justifiquen, banalicen y/o invisibilicen estas agresiones.

10. _Zerbitzuak emateko jarraibideak._

10. _Directrices para la prestación del servicio._

Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak mendetasun-egoeran dauden pertsonentzako egoitzen foru zerbitzu publikoaren ezaugarriei buruz ematen dituen jarraibideak beteko ditu udal egoitzaren zuzendaritzak hitzarmen honetako egoitza-zentroan ematen den zerbitzuan.

La dirección de la residencia municipal acatará las directrices emanadas del Departamento de Acción Social de la Diputación Foral de Bizkaia con relación a las características del servicio público foral de residencias para personas en situación de dependencia que se preste en el centro residencial objeto del presente convenio.

h. Langileak

h. Personal.

1. _Langileen prestakuntza._

1. _Cualificación del personal._

Zentroak hala derrigorrezko izaerarekin nola aukerazko izaerarekin eskainiko dituen zerbitzuak egiteko pertsonal egokia edukiko du, bai kopuruan eta baita gaitasun eta prestakuntza profesionalean, beti ere pertsona erabiltzaile guztien profila eta beharrizan bereziak kontuan hartuta.

El centro deberá disponer del personal adecuado, en número y en cualificación profesional, para realizar los servicios que oferte, tanto con carácter obligatorio como opcional, y teniendo en cuenta el perfil y necesidades específicas de cada persona usuaria.

Legez ezarritako profesionaltasunaren printzipioari jarraituz, langile guztiek eduki behar dute titulu akademiko edo ofizial egokia, edo bestela lanbide maila eta esperientzia frogatu behar dituzte. Zilegi da langile batek prestazio batean baino gehiagotan jardutea, baldin eta horretarako behar den prestakuntza badu eta ordutegiak bateragarriak badira.

Obedeciendo al principio de profesionalidad legalmente establecido, la totalidad del personal ha de contar con la debida titulación académica oficial o, en su caso, deberá tener acreditado su nivel y su experiencia profesionales. Cabe la posibilidad de que una misma persona actúe en más de una prestación, siempre que cuente con la oportuna cualificación y no exista incompatibilidad horaria.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 5Q9S-1RED-MVTI-MU4R
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

2. *Langileen konputua.*

2. *Cómputo de personal*.

Egoitza zentroko erabiltzaileen laguntza beharrizanak aseko dituzten langileak (zuzeneko arretako langileak) hauek izango dira: zaintzaileak, osasun langileak, jardueretako begiraleak, eta gizarte lanean eta laguntza psikologikoan diharduten langileak.

El cómputo de personal para cubrir las necesidades asistenciales de las personas usuarias del centro residencial (personal de atención directa), estará compuesto por personal cuidador, personal sanitario, monitoras y monitores de actividades y el personal de trabajo social y apoyo psicológico.

Ezin dira boluntarioak eta ikasleak kontuan hartu laguntza “ratioa” kalkulatzeko.

No cabe incluir al voluntariado, ni a estudiantes dentro del cálculo de la “ratio” asistencial.

Beharrizanen eta gerta litezkeen aldaketen arabera, laguntza-ratioa aldatzeko aukera aztertuko da.

Atendiendo a las necesidades y variaciones que pueda experimentar se estudiarán las modificaciones de la ratio asistencial.

Langileen eta erabiltzaileen arteko proportzioa edo “ratioa” honela kalkulatuko da:

Para establecer la proporción o “ratio” personal/residentes se considerará:

1.- Zenbakitzaile gisa, langileek lan egindako orduen guztizko kopurua, lan-ezaugarriak eta kontratatzeko moduak edozein direla ere (finkoa, behin-behinekoa edo ordezkoa; dedikazio osoa edo partziala; zerbitzu profesionalen kontraprestazioa, etab.), zati aplikatzekoa den lan-hitzarmenak edo, halakorik ezean, Langileen Estatutuak ezarritako urteko orduak.

1. Como numerador, el número total de horas trabajadas por el personal, con independencia de sus características laborales y formas de contratación (fijo, eventual o sustituto; dedicación completa o parcial; contraprestación de servicios profesionales, etc.), dividido por las horas anuales que establezca el convenio laboral que sea de aplicación o, en su defecto, el Estatuto de los Trabajadores.

2.

3. Egoitzan okupatuta dauden plazen kopurua izango da izendatzailea.

2. Como denominador, el número de plazas ocupadas de la residencia.

4. Langile/egoiliarren gutxieneko proportzioa edo ratioa Euskal Autonomia Erkidegoko adineko pertsonentzako egoitza-zentroei buruzko uztailaren 30eko 126/2019 Dekretuan adierazitakoa da.

3. La proporción o ratio personal/personas residentes, mínima, será la que se indica en el Decreto 126/2019, de 30 de julio, de centros residenciales para personas mayores en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 5Q9S-1RED-MVTI-MU4R
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

LAUGARRENA.- EGOITZA-ZERBITZUA DAGOKIEN PERTSONAK.

Gizarte Ekintza Saileko foru diputatuak foru agindu bidez izendatutako pertsonak izango dira mendetasun-egoeran dauden pertsonentzako egoitza-zerbitzuaren hartzaileak, indarrean den araudian xedatutakoaren arabera, eta Zeberioko biztanleek izango dute lehentasuna, baina mendetasun-egoeran dauden pertsonentzako foru zerbitzu publikoa arautzen duen arautegian xedatutakoaren kaltetan egin gabe.

CUARTA. - PERSONAS DESTINATARIAS DEL SERVICIO RESIDENCIAL.

El servicio residencial para personas en situación de dependencia estará destinado a las personas designadas por el Departamento de Acción social en virtud de Orden Foral dictada por la Diputada Foral del Departamento de Acción Social, de conformidad con lo dispuesto por la normativa vigente, preferentemente vecinas y vecinos del municipio de Zeberio, sin perjuicio de lo que disponga la normativa reguladora del servicio público foral de residencias para personas dependientes.

BOSGARRENA.-ALDERDIEN BETEBEHARRAK.

a) Fundazioaren betebeharrak.

*1.-Barne-administrazioari dagokionez.*

1.1. Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak fundazioari hitzartutako plazen kostua ordaintzeko, fundazioak hilero, eta aldez aurretik, faktura egokia aurkeztu beharko dio.

1.2. Udal egoitzak altak eta bajak jakinarazi behar dizkio Gizarte Ekintza Saileko Zentroetako Arreta Zerbitzuari, hala behin betikoak nola aldi baterakoak. Halaber, hutsik dauden plazen profilen eta zerbitzuaren ohiko jardunean edo erabiltzailearen eta Bizkaiko Foru Aldundiaren arteko harremanetan eragina izan dezaketen beste gorabehera guztien berri ere eman behar dio. Datu horiek telematikoki bidali behar dira Gizarte Ekintza Sailaren zentroetako ingresuak kudeatzeko aplikazio informatikoaren bidez.

QUINTA. - OBLIGACIONES DE LAS PARTES.

a) Obligaciones de la Fundación.

*1.-Con relación a la administración interna.*

1.1. Con el fin de que la Diputación Foral de Bizkaia – Departamento de Acción Social abone a la Fundación el coste de las plazas convenidas, ésta deberá mensualmente y con carácter previo presentar la factura correspondiente.

1.2. La residencia municipal queda obligada a comunicar al Servicio de Atención en Centros del Departamento de Acción Social las altas y bajas, tanto definitivas como temporales, que se produzcan, perfiles de las plazas vacantes, así como cualquier otra incidencia que afecte al normal desarrollo del servicio o a la relación existente entre la persona usuaria y la Diputación Foral de Bizkaia. Asimismo, estos datos deberán ser enviados de forma telemática, mediante la aplicación informática de gestión de ingresos en centros del Departamento de Acción Social.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 5Q9S-1RED-MVTI-MU4R
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

*2. Beste betebehar batzuk.*

2.1. Fundazioa hertsiki lotuko zaizkio eremu guztietan aplikatu ahal zaizkion baldintzei eta xedapenei.

2.2. Fundazioak aplikatu ahal zaion arautegiaren arabera behar dituen baimen eta erregistro guztiak eskatu eta izapidetu behar ditu.

2.3. Fundazioak aplikatu ahal zaizkion zerga, karga eta gainerako guztiak ordainduko ditu.

2.4. Hitzarmen honekin zerikusia duen jarduera, txosten edo argitalpen batek kanpo-proiekzioa badu, zerbitzuaren titularra Bizkaiko Foru Aldundia dela adierazi behar da, hau da, zentroak Bizkaiko Foru Aldundiarekin ituna duela. Hain zuzen ere, Gizarte Ekintza Sailaren izena eta logotipoa agertu behar dira, eta logotipoan ondokoak: Aldundiaren anagrama eta garaia denean zehaztuko den testu bat.

Halaber, egoitzaren eraikineko fatxada nagusian ere, erraz ikusteko moduko tokian agertu behar da Bizkaiko Foru Aldundiak itunduta duela egoitza mendetasun-egoeran dauden pertsonen egoitzen foru zerbitzurako: Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailaren izena eta logotipoa agertu behar dira.

2.5 Udal egoitzak, Bizkaiko Foru Aldundiarekin, erabiltzaileekin eta haien senideekin eta arduradunekin dituen harremanetan, Gizarte Ekintza Sailak onetsitako inprimaki elebidunak erabiliko ditu. Inprimakiotan zerbitzua Bizkaiko Foru Aldundiarena dela eta Fundazioarekin itunduta dagoela agertuko da.

*2. Otras obligaciones.*

2.1. La Fundación se ajustará estrictamente a las condiciones y disposiciones legales que le sean aplicables en todos sus ámbitos.

2.2. Corresponde a La Fundación la solicitud y tramitación de todas las autorizaciones y registros a que estuviere obligada en razón de la normativa que le sea aplicable.

2.3. La Fundación se obliga al pago de los impuestos, gravámenes, etc., que le sean de aplicación.

2.4. En cualquier actividad, memoria o publicación que tenga proyección exterior se hará constar la titularidad foral del servicio en su condición de centro convenido por la Diputación Foral de Bizkaia, incluyendo la denominación y logotipo del Departamento de Acción Social, siendo éste el formado por el anagrama de la Diputación acompañado del texto que se determine en su momento.

Dicha condición de centro convenido por la Diputación Foral de Bizkaia, para la prestación del servicio público foral de residencias para personas en situación de dependencia, deberá constar, asimismo, en lugar visible de la fachada principal del edificio incluyendo la denominación y logotipo del Departamento de Acción Social de la Diputación Foral de Bizkaia.

2.5. La residencia municipal, en sus relaciones con la Diputación Foral de Bizkaia, las personas usuarias y familiares, utilizará los impresos bilingües, aprobados por el Departamento de Acción Social, en los que figure la pertenencia del servicio a la Diputación Foral de Bizkaia como servicio convenido con La Fundación .

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 5Q9S-1RED-MVTI-MU4R
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Era berean, Euskararen erabilera arautzeko azaroaren 24ko 10/1982 oinarrizko legearen eta kontsumitzaileen eta erabiltzaileen Estatutuen abenduaren 22ko 6/2003 Legearen xedapenei jarraituz, beharrezko baliabideak ezarriko ditu erabiltzaileek euskara eta gaztelaniaren arteko hizkuntza aukera egiteko duten eskubidearen betearazpena bermatzeko. Ondorio horretarako, zerbitzu horren esparruan, erabiltzaileen kontzeptua haien familiei eta egoiliarren babes informaleko sarea osatzen duten gainerakoei luzatuko zaie.

Asimismo, y en cumplimiento de lo establecido en la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, básica de normalización del uso del Euskera, y de la Ley 6/2003, de 22 de diciembre, de Estatuto de las personas consumidoras y usuarias, adoptará los medios necesarios para garantizar el ejercicio del derecho de las personas usuarias a la elección lingüística del castellano o el euskera, extendiendo a tal efecto, en el marco de este servicio, el concepto de personas usuarias, a las familias y al resto de la red de apoyo informal de las personas residentes.

2.6. Fundazioak eta, hala badagokio, hitzarmen honen xede diren zerbitzuak emateko kontratatzen diren erakundeek hizkuntza eta irudien erabilera ez-sexista egin beharko dute behin betiko edozein dokumentu idatzi edo digitaletan. Halaber, sor daitekeen pertsonei buruzko edozein estatistikatan datuak sexuaren arabera bereiz jasoko ditu, hala ezartzen baitu Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 2.3 artikuluak, non jasotzen baitira Fundazioaren jarduna gidatu eta bideratu behar duten printzipio nagusiak.

2.6 La Fundación y, en su caso, las entidades contratadas por éste para prestar los servicios objeto de este convenio, harán un uso no sexista del lenguaje e imágenes en cualquier documento definitivo escrito o digital. Asimismo, ésta deberá desagregar los datos por sexo en cualquier estadística referida a personas que se genere, todo ello al amparo del artículo 2.3 del Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres, en el que se señalan los principios generales que deberán regir y orientar la actuación de la Fundación .

2.7. Erakundeak konpromisoa hartzen du, ahal duen neurrian arkitektura- eta komunikazio-mugak kentzen laguntzeko, hitzarmen honetan oinarrituta antolatzen diren zerbitzu, ekitaldi eta jardueretan.

2.7. La entidad convenida se compromete, en la media de sus posibilidades, a colaborar en la eliminación de barreras arquitectónicas y de comunicación, en relación con los servicios, eventos o actividades que se organicen relacionados con el presente convenio.

2.8. Zerbitzua egiten den lokalak fundazioak jartzen dituenez, dagokion kalteen asegurua sinatu beharko du, hitzarmenaren indarraldi osoan. Aseguratutako zenbatekoa ez da izango eraikuntza berriaren / ondasun berrien balioa baino txikiagoa, eta estalitako arriskuen zerrenda ahal bezain zabala izango da.

2.8. Dado que los locales donde se presta el servicio son aportados por la Fundación, este deberá suscribir el correspondiente seguro de daños, durante todo el periodo de vigencia del convenio. La suma asegurada no será inferior al valor de nueva construcción/reposición de los bienes y la relación de riesgos cubiertos será tan amplia como razonablemente sea posible.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 5Q9S-1RED-MVTI-MU4R
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Fundazioak, hitzartutako zerbitzurako, erantzukizun zibileko aseguru-poliza bat kontratatu beharko du, kasu honetan gutxienez 1.000.000 euroko estaldurarekin, hitzartutako zerbitzuak ematearen ondoriozko erreklamazioak ziurtatzeko, bai eta titulazio ofiziala eskatzen zaion Fundazioko langileen edozein jardueratik eratorritako erantzukizun zibilak bermatzeko ere. Erantzukizun zibil horiek bermatuko dute, erreserbarik gabe, zerbitzua gauzatzearen eta betebeharren garapen orokorraren ondorioz hirugarrenengan izan ditzakeen eraginengatik eska dakizkiokeen zuzeneko, zeharkako eta/edo ondoriozko kalte guztiak ziurtatuko ditu. Aseguruaren barruan, hirugarrentzat hartuko dira, halaber, Bizkaiko Foru Aldundia eta zerbitzuaren erabiltzailea, langileak, boluntarioak eta, hala badagokio, Fundazioko azpikontratatzaileak (haren zerbitzuko langileak barne).

La Fundación vendrá obligada a suscribir con carácter general para el servicio convenido, una póliza de seguro de responsabilidad civil, en el presente caso con una cobertura mínima de 1.000.000 €, con objeto de asegurar las reclamaciones derivadas de la prestación de los servicios convenidos, así como las responsabilidades civiles derivadas de cualquier actividad del personal de la Fundación para la que se requiera titulación oficial, que asegure, sin reservas, cuantos daños directos e indirectos y/o consecuenciales puedan serle exigibles por posibles afecciones a terceros derivados de la ejecución del servicio y desarrollo general de sus obligaciones. Dentro del seguro tendrán también la consideración de terceros tanto la Diputación Foral de Bizkaia como la persona usuaria del servicio, el personal empleado, el personal voluntario y, en su caso, las entidades subcontratadas (incluido el personal a su servicio) de la Fundación.

Hala ere, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak beste aseguru batzuk kontratu beharra ezar dezake, prestazioaren ezaugarriek hori egitea eskatzen dutenean.

No obstante, la Diputación Foral de Bizkaia - Departamento de Acción Social podrá exigir la contratación de seguros adicionales cuando las características de la prestación así lo requieran.

Fundazioak eskatutako aseguruak kontratatu dituela eta indarrean daudela frogatu behar du hitzarmena sinatu baino lehen; horretarako, poliza osoaren kopia aurkeztu behar du, eta haiekin batera asegurua indarrean dagoela eta primak ordaindu dituela frogatzen duen ziurtagiria, aseguru-konpainiak emana, edo, bestela, konpainiaren ordainagiriak aseguruen indarraldia frogatzeko.

La Fundación deberá acreditar la contratación y vigencia de los seguros aquí requeridos antes de la firma del Convenio, aportando copia íntegra de las pólizas y Certificados de las Compañías Aseguradoras donde se acredite la vigencia de los seguros y estar al corriente del pago de las primas de los mismos o, en defecto de esto último, los recibos de las respectivas Compañías Aseguradoras que acrediten dicha vigencia.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 5Q9S-1RED-MVTI-MU4R
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

2.9. Fundazioak justifikatu beharko du hitzarmen hau ekonomikoki eta finantzarioki betetzen dela eta ezarritako xedeari egoki erantzuten zaiola. Horretarako, Bizkaiko Foru Aldundiak, Ogasun eta Finantza Sailaren eta haren kontrol ekonomiko-finantzarioko organoen bitartez, edozein unetan egin ahal izango ditu dagozkion ikuskapenak eta kontrolak.

2.9. La Fundación deberá justificar el cumplimiento económico financiero del presente convenio, ajustado al destino y cumplimiento del fin establecido. A estos efectos, la Diputación foral de Bizkaia, a través del Departamento de Hacienda y Finanzas y sus órganos de control económico-financiero, podrá en cualquier momento realizar las inspecciones y controles que corresponda.

2.10. Fundazioak edo udal egoitzaren kudeaketaren edo ustiapenaren adjudikazioa jaso duen erakundeak bermatu egin behar du Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak eta zerga-betebeharrak bete dituela, eta gauza bera egin behar du egoitza zentroko zerbitzuak egiteko azpikontratatzen dituen erakundeei dagokienez.

2.10. La Fundación y, en su caso, la entidad adjudicataria para la gestión y/o explotación de la residencia municipal, deberá encontrarse al corriente en el cumplimiento de las obligaciones con la Seguridad Social, así como de las tributarias, y se obliga a asegurar el mismo cumplimiento con relación a las entidades subcontratadas para la prestación de los servicios del centro residencial.

2.11. Fundazioak bermatuko du zerbitzuak emateko kontratatzen eta azpikontratatzen diren erakundeak ez daudela debeku, ezintasun edo bateraezintasun kausetan, eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legeko 71. artikuluan ezarritako baldintzak bete beharko ditu.

2.11. La Fundación garantizará que las entidades contratadas y subcontratadas para la prestación de los servicios no estén incursas en causa de prohibición, incapacidad o incompatibilidad, cumpliendo los requisitos contenidos en el artículo 71 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público.

2.12. Fundazioak eta udal egoitzaren kudeaketaren edo ustiapenaren adjudikazioa jasotzen duen erakundeak konpromisoa hartu behar dute Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko Legean eta segurtasunaren arloan indarra duten gainerako arauetan xedatutakoa betetzeko.

2.12. La Fundación y, en su caso, la entidad adjudicataria para la gestión y/o explotación de la residencia municipal, se compromete al cumplimiento de lo dispuesto en la Ley de Prevención de Riesgos Laborales y demás normativa de seguridad vigente.

2.13. Fundazioak eta, egotekotan, hitzarmen honen xede diren zerbitzuak emateko kontratatzen dituen erakundeek, indarrean dagoen gizarte eta lan arloetako araudia bete beharko dute, baita eguneraketak ere, eguneratzen den neurrian, erakunde horien eta beraientzat lan egiten duten langileen arteko lan-harremanei dagokienean. Era berean, eta aplikazio eremuaren barruan dagoen heinean, erakundeetan kontraturik gabe ari diren

2.13. La Fundación y, en su caso, las entidades contratadas por éste para prestar los servicios objeto de este convenio, estarán obligados al cumplimiento de lo dispuesto en la normativa sociolaboral vigente, y a su actualización conforme se modifique, en lo que se refiere a las relaciones de trabajo establecidas entre dichas entidades y las personas trabajadoras que presten sus servicios para ellas. Asimismo, y en la medida en que resulte comprendido dentro de su

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 5Q9S-1RED-MVTI-MU4R
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

EUSEBIO ALDEKOA EGOITZA

RESIDENCIA EUSEBIO ALDEKOA

Bizkaia foru aldundia diputación foral

boluntarioek edota laguntzaileek ere bete behar dute arautegi hori.

ámbito de aplicación, tal normativa será de obligado cumplimiento para con el personal voluntario y/o colaborador de las entidades cuya vinculación con la misma no se encuentre regulada por una relación contractual.

Ildo berean, agerrarazten da Bizkaiko Foru Aldundia Fundazioko langileekiko (edota hitzarmen honetako zerbitzuak emateko kontratatzen dituen enpresetako langileekiko) lan-harremanetatik aske dagoela ondorio guztietarako.

En este orden de cosas, se hace constar que la Diputación Foral de Bizkaia queda desvinculada a todos los efectos de cualquier relación laboral con el personal de la Fundación y/o de las empresas contratadas por éste para la prestación de los servicios objeto del presente convenio.

2.14. Fundazioak zintzo bete beharko ditu honako arloei buruz indarrean diren xedapenetatik eratorritako betebehar guztiak: makineriaren instalazioa eta funtzionamendua, instalazioen segurtasuna, larrialdietarako autobabes-neurriak, suteen prebentziorako neurriak, eta legedi sektorialean zehaztutako beste edozein neurri. Bermatu beharko du, halaber, erabiltzaile eta langileentzako horri buruzko informazio eta prestakuntza egokia.

2.14. La Fundación deberá cumplir todas las obligaciones que se deriven de las disposiciones vigentes en materia de instalación y funcionamiento de maquinaria, seguridad de instalaciones, medidas de autoprotección frente a emergencias, sistemas de prevención de incendios y cualesquiera otras que se determinen en la legislación sectorial, garantizando la adecuada información y formación del personal y de las personas usuarias.

2.15. Fundazioak zintzo bermatuko du egoitza-zerbitzuaren funtzionamendua baimentzeko eta homologatzeko indarrean dagoen araudiak finkatutako irizpideak betetzen direla administrazio eskudunak horretarako ezarritako epean eta, bereziki, uztailaren 30eko 126/2019 Dekretuaren xedapen iragankorretan xedatutakoan.

2.15. La Fundación garantizará el cumplimiento de los criterios de autorización de funcionamiento y de homologación del servicio residencial fijados por la normativa vigente dentro del plazo establecido al efecto por la Administración competente y especialmente en los previsto en las disposiciones transitorias del Decreto 126/2019, de 30 de julio.

*3.-Informazioa emateko obligazioak.*

3.1.. Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak hala eskatuz gero, Fundazioak informazio ekonomikoa eta estatistika-informazioa eman beharko du, hitzartzen den zerbitzuaren jarraipena egin ahal izateko.

*3.-Obligaciones de información.*

3.1. A requerimiento de la Diputación Foral de Bizkaia - Departamento de Acción Social la Fundación habrá de facilitar la información económica y estadística que le sea solicitada para el seguimiento del servicio que se convenia.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 5Q9S-1RED-MVTI-MU4R
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Nolanahi ere, gutxienez, sinatutako akordioa aplikatu eta hurrengo urteko lehenengo seihilekoan honako dokumentazioa aurkeztu beharko da:

En todo caso, y como mínimo, presentará durante el primer semestre de cada año siguiente al de aplicación del convenio suscrito la siguiente documentación:

a. Jarduera-txostena, aurrez ikusitako helburuen arabera kudeaketa, pertsona erabiltzaileen profila, lan-metodologia, bitarteko materialak eta giza baliabideak, langileen prestakuntza eta trebatzeko jarduerak jasotzen dituena.

a. Una memoria de actuación donde se recoja la gestión realizada según los objetivos previstos, el perfil de las personas usuarias, la metodología del trabajo, los recursos materiales y humanos, las actividades de formación y reciclaje del personal.

b. Txosten ekonomikoa, honakoekin:

- Egoitza-zentroaren gastuen eta diru-sarreren egoera.
- Zentroko langileen gastuei buruzko zerrenda sailkatua.
- Aurreko atalean gastuen egoerari egotzi zaion gainerako gastu bakoitzaren zerrenda sailkatua kontzeptuen arabera.
- Diru-sarreren zerrenda sailkatua kontzeptuen arabera.

b. Una memoria económica que debe comprender:

- Un estado de gastos e ingresos del centro residencial.
- Una relación clasificada de los gastos de personal del centro.
- Una relación clasificada por conceptos, de cada uno de los demás gastos imputados al estado de gastos del apartado anterior.
- Una relación clasificada de ingresos por conceptos.

Hau guztia gorabehera, Kontuhartzailetzako idazkaritzak bidezko txostena jaulki beharko du. Txosten horretan honako hitzarmen honen bidez ingresatu den muntaren destinoa osorik izan dela bere xedea betetzeko azalduko du.

En todo caso, desde la Secretaría de intervención se deberá emitir el correspondiente informe en el que se recoja que el destino del importe ingresado por el presente convenio se ha aplicado íntegramente al objeto del mismo.

3.2 Fundazioak publizitate aktiboari eta informazio publikoa atzitzeko eskubideari dagozkien eginbeharrak bete beharko ditu, Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauan jasotzen denaren arabera.

3.2.La Fundación habrá de facilitar la información y documentación necesaria para garantizar la transparencia en el marco de la Norma Foral de Transparencia 1/2016, 17 de febrero.

3.3. Egoitzak datu guztiak eman eta eskatutako dokumentu guztiak aurkeztu beharko ditu, horretarako instalatutako eta ikastetxeen eskura jarritako aplikazio informatikoaren bidez. Besteak beste, datu hauek eman beharko dira nahitaez:

3.3. La residencia habrá de facilitar todos los datos y aportar todos los documentos exigidos a través de la aplicación informática instalada al efecto y puesta a disposición de los centros. Entre otros, serán de obligada aportación los siguientes datos:

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 5Q9S-1RED-MVTI-MU4R
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

- Arreta zuzeneko ratioak.
- Zuzeneko arretako langileen prestakuntzaren egiaztapen xehatua.
- Eskuragarri dituen laguntza osagarriko zerbitzuak.
- Pertsonalak Euskal Autonomia Erkidegoan hizkuntza koofizialak dakizkiela egiaztatzen duen ziurtagiri ofiziala.
- Zentroak edo erakundeak erabiltzen dituen kudeaketa-kalitateko sistemak.
- Interakzio-sistemak komunitate-eremuan (lan-sareetan parte hartzea, tokiko elkarte-sarearekin akordioak sinatzea gizarte-hitzarmen honen xedearekin zuzenean lotutako gizarte- eta komunitate-intereseko ekintzetan, eta haien prestazioan eragina dutenean).
- Erabiltzaileek edo haien familiek Internetera wi-fi bidez konektatzeko aukerak.

- Ratios de atención directa.
- Acreditación pormenorizada de la formación del personal de atención directa.
- Servicios de asistencia complementaria de los que dispone.
- Acreditación oficial de conocimiento de idiomas cooficiales en la Comunidad Autónoma Vasca del personal.
- Sistemas de calidad en la gestión utilizados por el Centro o entidad.
- Sistemas de interacción en el ámbito comunitario (participación en redes de trabajo, suscripción de acuerdos con el tejido asociativo local en acciones de interés social y comunitario directamente relacionadas con el objeto del presente convenio social y que incidan en su prestación).
- Posibilidades de conexión a internet, vía wi-fi, por parte de las personas usuarias o sus familias.

Era berean, egoitzak ezinbestez bidali beharko ditu datuak eta informazioa erabiltzaileei (adibidez, informazio funtzionala, laguntzari buruzkoa edo bisiten ingurukoa), profesionalei (adibidez, profilak, prestakuntza edo kontratu-mota) eta zentroei (esaterako, zerbitzu eskuragarriak, mantentze-lanak edo harremanetarako langileak) buruz, Sailak zehaztutako baldintza eta eskakizunekin, jakinarazteko emandako epeetan.

Asimismo, la residencia quedará obligada al envío de datos e información relativa a personas usuarias (ej. información funcional, asistencial o de visitas), profesionales (ej. perfiles, cualificación o tipo de contrato) y centros (ej. servicios disponibles, mantenimientos realizados o personal de contacto), en los términos y condiciones que el Departamento determine y comunique en los plazos oportunos.

Datu horiek Bizkaiko Foru Aldundiari bide telematikotik bidaliko zaizkio, xede horretarako gaitzen diren kanalez baliaturik, bai truke automatikoaren bidez Bizkaiko Foru Aldundiko informazio-sistemekin txertatzeko, bai erakundeek zehaztutako formatu eta aldizkakotasunarekin bidaltzeko. Hala eta guztiz ere, kanalak abian jarri arte, Bizkaiko Foru Aldundiak erakundeei eska diezaieke datuak eta informazioa beste bitarteko batzuen bidez bidaltzeko.

Estos datos serán enviados a la Diputación Foral de Bizkaia de forma telemática, a través de los canales que al efecto se habiliten, tanto para la integración con sistemas de información de la Diputación Foral de Bizkaia mediante el intercambio automático como para el envío de los mismos por parte de las entidades, con el formato y periodicidad que se determinen. No obstante, hasta la puesta en marcha de los mencionados canales, la Diputación Foral de Bizkaia podrá solicitar a las entidades el envío de datos e información a través de otros medios.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 5Q9S-1RED-MVTI-MU4R
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Era berean, kanalei esker, Bizkaiko Foru Aldundiak informazioa eman dezake, besteak beste, erabiltzaile bati zerbitzuan alta ematen zaionean edo informazio horrekin erakundearen kudeaketa-zereginak erraztuko direla uste denean

Los canales habilitados posibilitarán, asimismo, el suministro de información por parte de la Diputación Foral de Bizkaia cuando se produzca el alta de una persona usuaria en el servicio o cuando se considere que dicha información puede facilitar las tareas de gestión de la entidad, entre otras posibles situaciones.

Egoitzak nahitaez prestatuko ditu zerbitzuarekin zerikusia duten txosten eta datuak, hala eskatuz gero.

La residencia quedará obligada, igualmente, a la preparación de cuantos informes y datos relacionados con el servicio sean requeridos.

4. *Lan, gizarte- eta ingurumen-betebeharrak.*

4.-*Obligaciones laborales, sociales y medioambientales.*

4.1) Subrogazio-klausulak eta gizarte- eta lan-araudia betetzea.

4.1) Cláusula subrogatoria y cumplimiento de la normativa social y laboral.

Fundazioak eta, hala badagokio, hark hitzarmen honen xede diren zerbitzuak emateko kontratatzen dituen entitateek bete beharko dituzte lan-arloan indarrean dauden legezko xedapenak, erregelamenduzko xedapenak eta ohiko xedapenak, Gizarte Segurantzakoak, laneko segurtasunarekin eta osasunarekin lotutakoak eta, bereziki, lan-baldintzen erabaki arautzaileetan edo aplikatu behar den hitzarmen kolektiboan jasotakoa.

La Fundación y, en su caso, las entidades contratadas por éste para prestar los servicios objeto de este convenio estarán sujetas al cumplimiento de las disposiciones legales, reglamentarias y convencionales vigentes en materia laboral, de seguridad social y de seguridad y salud en el trabajo así y, en particular, al cumplimiento de lo previsto en los acuerdos reguladores de condiciones laborales o convenio colectivo que resulte de aplicación.

Bizkaiko Foru Aldundiak aurreko aginduak betetzen direla zainduko du, eta langileen legezko ordezkariek, langileek berek edo aipatutako betebeharrak betetzen ez direla jakin dezakeen edozein pertsona fisikok helaraz diezazkioketen gorabeherei erantzungo die. Horretarako, Bizkaiko Foru Aldundiak Gizarte Ekintza Saileko ikuskaritza eta kontrol zerbitzuak erabili ahal izango ditu.

La Diputación Foral de Bizkaia velará por el cumplimiento de las anteriores prescripciones y atenderá las incidencias que pudieran trasladarle los y las representantes legales de los y las trabajadoras, el propio personal o cualquier persona física que pudiera tener conocimiento de algún incumplimiento de las mencionadas obligaciones. Para ello, la Diputación Foral de Bizkaia podrá utilizar los servicios de inspección y control del Departamento de Acción Social.

4.2) Esleipendun bati lan-segurtasunaren eta -osasunaren arloan lan egiten duen harremanetarako pertsona bat izendatzeko betebeharra, eremu horretan sor daitezkeen gorabeherak hautemateko.

4.2) Obligación de designar una persona de contacto vinculada a la adjudicataria con dedicación en materia de seguridad y salud laboral para la detección de las posibles incidencias que surjan en este ámbito.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 5Q9S-1RED-MVTI-MU4R
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Fundazioak eta, hala badagokio, hark hitzarmen honen xede diren zerbitzuak emateko kontratatzen dituen erakundeek bere gain hartuko dute laneko segurtasunaren eta osasunaren arloko prestakuntza espezifikoa duen harremanetarako pertsona bat izendatzeko betebeharra, laneko segurtasun- eta osasun-baldintza galdagarrien aplikazioa gainbegiratu eta kontrolatzeko, bai eta eremu horretan sor daitezkeen gorabeherak detektatzeko ere. Segurtasunaren eta osasunaren eremuan genero-ikuspegia txertatzea sustatuko da. Era berean, lan-osasuna babestu, sustatu eta hobetzearen barruan, sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena ere kontuan hartuko dira.

La Fundación y, en su caso, las entidades contratadas por éste para prestar los servicios objeto de este convenio asumirán la obligación de designar una persona de contacto con formación específica en materia de seguridad y salud laboral, para la supervisión y control de la aplicación de las condiciones de seguridad y salud laboral exigibles, así como para la detección de las posibles incidencias que surjan en este ámbito. Se promoverá la incorporación de la perspectiva de género en el ámbito de la seguridad y la salud. Asimismo, se considerará, además dentro de protección, promoción y mejora de la salud laboral, el acoso sexual y el acoso por razón de sexo.

4.3) Lanean prestatzeko betebeharra.

4.3) Obligación de formación en el trabajo.

Fundazioak eta, hala badagokio, hark hitzarmen honen xede diren zerbitzuak emateko kontratatutako erakundeek beren gain hartuko dute lanposturako urteko prestakuntza-ekintza bat antolatzeko betebeharra, gutxienez zentroan dauden lanbide-kategorien % 75erako.

La Fundación y, en su caso, las entidades contratadas por éste para prestar los servicios objeto de este convenio asumirán la obligación de organizar al menos una acción de formación anual para el puesto de trabajo para, al menos, el 75 % de las categorías profesionales existentes en el centro.

Emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko ezagutzak lortzeko prestakuntza-ekintzak lehenetsiko dira, baita indarkeria matxistaren prebentzioari eta arretari buruzkoak ere. Laguntza teknikoa kontratatu behar izanez gero, Emakundek homologatutakoa izan beharko du, ekainaren 8ko, aholkularitza entitateen homologazioa arautzen duena, enpresa eta erakundeei gizon eta emakumeen berdintasunaren alorrean laguntza teknikoa emateko 105/2004 dekretuaren arabera.

Se priorizarán acciones formativas encaminadas a obtener conocimientos de igualdad de mujeres y hombres así como de prevención y atención de violencia machista. En caso de necesidad de contratación de una asistencia técnica, ésta tendrá que ser homologada por Emakunde según Decreto 105/2004, de 8 de junio por el que se regula la homologación de entidades consultoras para la prestación de asistencia técnica en materia de igualdad de mujeres y hombres a empresas y entidades.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 5Q9S-1RED-MVTI-MU4R
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

4.4) Berdintasuna bermatzeko betebeharra enplegua lortzean, lanbide-sustapenean, familia eta lana bateragarri egiteko sustapenean.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bermatuko da tratuan, enplegua lortzean, lanbide-sailkapenean, sustapenean, iraunkortasunean, prestakuntzan, iraungipenean, ordainsarietan, lan-kalitate eta -egonkortasunean, lanaldiaren iraupenean eta antolamenduan.

4.4) Obligación de garantizar la igualdad en el acceso al empleo, promoción profesional, fomento de la conciliación familiar y laboral.

Se garantizará la igualdad de mujeres y hombres en el trato, en el acceso al empleo, clasificación profesional, promoción, permanencia, formación, extinción, retribuciones, calidad y estabilidad laboral, duración y ordenación de la jornada laboral.

4.5) Familia eta lana bateragarri egitea sustatzeko exekuzio-baldintza berezia.

Hitzarmena gauzatzeari atxikitako langileen lana, bizitza pertsonala eta familia bateragarri egiteko neurriak ezarriko dira.

4.5) Condición especial de ejecución en materia de fomento de la conciliación familiar y laboral.

Se establecerán medidas que faciliten la conciliación de la vida laboral, personal y familiar del personal adscrito a la ejecución del convenio.

4.6) Ingurumen-neurriak, irizpide etikoak, sozialak eta bidezko merkataritzakoak

Fundazioak eta, hala badagokio, hark hitzarmen honen xede diren zerbitzuak emateko kontratatzen dituen erakundeek bermatu beharko dute, hitzarmena gauzatzen den bitartean, ingurumen-, etika, soziala- eta merkataritza duineko praktika hauetakoren bat edo batzuk aplikatzen dituztela:

4.6) Medidas de carácter medioambiental, criterios éticos, sociales y de comercio justo.

La Fundación y, en su caso, las entidades contratadas por éste para prestar los servicios objeto de este convenio deberán garantizar que, durante la ejecución del convenio, aplican alguna o algunas de las siguientes prácticas de carácter medioambiental, éticas, sociales y de comercio justo:

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 5Q9S-1RED-MVTI-MU4R
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

a) Ondasunak ontziratu gabe erabiltzea, eta ez unitateka.
b) Ontziratzeko materiala eta erabilitako produktuak berreskuratzea edo berrerabiltzea.
c) Ondasunak ontzi berrerabilgarrietan erabiltzea.
d) Sortutako hondakinak bildu, birziklatu edo berrerabiltzea.
e) Produktuen kontsumoa: barazkiak, fruta, haragia, esnekiak edo arrain ekologikoak, freskoak eta/edo sasoikoak.
f) Bizkaiko lehen sektoreko produktuen kontsumoa (hurbileko produktuak edo 0 kilometrokoak).
g) Emakumeek sustatutako ekimenetatik eratorritako lehen sektoreko produktuak erostea.
h) Merkataritza duinetik datozen produktuak kontsumitzea, dela erabiltzaileek kontsumitzeko zuzenean, dela egoitza-zentroetan dauden produktuak saltzeko makinetan erabiltzeko.

a) Utilización de bienes a granel y no por unidades.
b) Recuperación o reutilización del material de envasado y de los productos usados.
c) Uso de bienes en recipientes reutilizables.
d) Recogida, reciclado o reutilización de los desechos producidos.
e) Consumo de productos tales como verdura, fruta, carne, lácteos o pescados ecológicos, frescos y/o de temporada.
f) Consumo de productos del primer sector de Bizkaia (productos de proximidad o kilómetro 0).
g) Consumo de productos del primer sector procedentes de iniciativas promovidas por mujeres.
h) Consumo de productos procedentes del comercio justo bien directamente para su destino al consumo por parte de las personas usuarias bien para su uso en las máquinas expendedoras de productos que se encuentren dentro de los centros residenciales.

4.7) <u>Indarrean dagoen hizkuntza-araubidetik eratortzen diren betebeharrak betetzea</u>.

4.7) <u>Cumplimiento de las obligaciones que se derivan del régimen lingüístico vigente.</u>

## 5. Datuen babesa: egoitzaren erabiltzaileen datu pertsonalen tratamendua.

## 5. Obligaciones relativas a la protección de datos: tratamiento de los datos personales de las personas usuarias de la residencia.

Udal-egoitzak, erabiltzaileen datuak tratatu beharko ditu, hitzarmen honi erantsitako <u>2. eranskinean (Datuen babesa)</u> ezarritakoaren arabera, Europako Parlamentuaren eta Europako Batzordearen 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Araudia (EB), datu pertsonalen tratamendua eta datu horien zirkulazio askea dela eta, pertsona fisikoen babesari buruzkoak (aurrerantzean, DBAO) eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, Datu pertsonalen babesari eta eskubide digitalen bermeari buruzkoak (aurrerantzean, DPBEDBLO) diotenarekin bat etorriz.

La residencia municipal, deberá tratar los datos de las personas usuarias conforme a lo establecido en el <u>Anexo 2-Protección de Datos</u> adjunto a este convenio, de conformidad con el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos (en adelante, RGPD) y la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de datos Personales y Garantía de los Derechos Digitales (en adelante LOPDGDD).

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 5Q9S-1RED-MVTI-MU4R
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

b) Gizarte Ekintza Sailaren betebehar eta erantzukizunak.

1. Gizarte Ekintzako Sailak Hitzarmen honen SEIGARREN klausulan ezarritako zenbatekoa ordainduko du. Kantitate hori Hitzarmen horren xede diren jarduerak finantzatzeko erabiliko da, Hitzarmen honetan jasotako aurreikuspenen arabera.

2. Gizarte Ekintza Sailak zerbitzuaren ikuskapen, kontrol, jarraipen eta ebaluazio lanak egingo ditu, haren kalitatea eta aurreikusitako emaitzen lorpena bermatzeko. Horretarako, zerbitzua ondo ari dela egiaztatzeko beharrezkotzat jotzen dituen agiri guztiak eskatu behar ditu, hain zuzen ere erabiltzaileei, langileei, administrazioari eta beste alderdi batzuei buruzko agiriak.

3. Gizarte Ekintza Sailak zerbitzuaren funtzionamendua hobetzeko bidezkotzat jotzen dituen denetariko gomendioak emango dizkio udal egoitzako zuzendaritzari, eta egoitzen foru zerbitzuan antzematen dituen akatsen berri eman behar dio, ahalik eta azkarren konpon ditzan.

4. Gizarte Ekintza Sailak, hau guztia gauzatzeko edozein unetan, dokumentu honetan jasotako betebeharrak betetzen direla bermatzeko behar den dokumentazioa eskatu ahal izango du, eta/edo, hala badagokio, dagozkion txostenak egiteko eta jarraipen-bilerak egiteko eskatzeko ahalmena eta eskumena izango ditu.

Eskaera eta datuak Gizarte Ekintza Sailak definitutako aplikazio informatikoaren bidez helaraziko dira.

b) Obligaciones y responsabilidades del Departamento de Acción Social.

1. El Departamento de Acción Social aportará el importe fijado en la cláusula SEXTA del presente Convenio. Dicha cantidad se destinará a la financiación de las acciones objeto de ese Convenio, de acuerdo con las previsiones recogidas en el presente Convenio.

2. El Departamento de Acción Social ejercitará la labor de inspección, control, seguimiento y evaluación permanente de la prestación del servicio a fin de garantizar la calidad de los mismos y el logro de los resultados previstos. A tal fin, se obliga, igualmente, a requerir cuanta documentación estime oportuna para comprobar la buena marcha y funcionamiento del servicio en lo que afecta a las personas usuarias, personal, administración, etc.

3. El Departamento de Acción Social trasladará a la dirección de la residencia todo tipo de recomendaciones que estime oportunas para la mejora de su funcionamiento, así como a poner en su conocimiento cualquier deficiencia observada en la prestación del servicio público foral de residencias para su subsanación en el menor plazo de tiempo posible.

4. El Departamento de Acción social podrá, en cualquier momento de la ejecución del mismo, solicitar la documentación pertinente para garantizar el cumplimiento de las obligaciones recogidas en este documento y/o solicitar en su caso, la elaboración de los correspondientes informes y/o la celebración de reuniones de seguimiento.

Tanto la solicitud como la aportación de datos se realizará a través de la correspondiente aplicación informática que el Departamento de Acción Social determine.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 5Q9S-1RED-MVTI-MU4R
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Dokumentazio hori nahitaez aurkeztu beharko da xede horrez emandako epeetan. Erakundeari egotz dakiokeen arrazoiarengatik egiten ez bada, administrazioak faktura geldiaraz dezake eta ordainketa etenda utzi eskakizun hori betetzen ez den bitartean.

La aportación de dicha documentación será obligatoria y deberá realizarse en los plazos otorgados al efecto. De no realizarse la misma, por causa imputable a la entidad, la Administración podrá retener la facturación y dejar en suspenso el pago de la misma hasta que dichas obligaciones queden cumplidas.

5. Baldin eta Bizkaiko Foru Aldundia ohartzen bada gastua frogatzeko emandako agirietan zerbait gaizki dagoela, eten egingo da kopuruen ordain-agindu ekonomikoa.

5. Si desde la Diputación Foral de Bizkaia se observaran irregularidades de cualquier tipo en los documentos justificativos del gasto, el libramiento económico de las cantidades correspondientes quedará en suspenso.

6. Beti ere, ezinbesteko koordinazioa eta lankidetza ziurtatzearren, Gizarte Ekintza Sailak dei egin ahalko die egoitza zentroaren kudeaketan parte hartzen duten alderdiei, azaltzen diren arazoak eta horien konponbideak aztertzeko.

6. En cualquier caso y a fin de asegurar la imprescindible coordinación y colaboración, el Departamento de Acción Social podrá convocar a las partes implicadas en la gestión del centro residencial, con el objetivo de examinar los problemas que puedan surgir y las medidas a adoptar para su resolución.

7. Gizarte Ekintza Sailak erabiltzaileen sarrerei buruz ebatziko du indarreko arautegiari jarraituz.

7. El Departamento de Acción Social resolverá sobre el ingreso de las personas usuarias de acuerdo con la normativa vigente.

<u>SEIGARRENA</u>.- HITZARMENAREN GEHIENEKO PREZIOA ETA ORDAINTZEKO ERA.

1.- Gehieneko prezioa.

Burutzapen epea eta plazen kopurua kontuan hartuta, hitzarmenaren gehieneko prezioa 857.823,00 euroa da (BEZik gabe).

<u>SEXTA</u>. - PRECIO MÁXIMO DEL CONVENIO Y FORMA DE PAGO.

1.- Precio máximo.

En atención al plazo de ejecución y al número de plazas, el precio máximo del convenio asciende a la cantidad de 857.823,00 euros (sin IVA).

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 5Q9S-1RED-MVTI-MU4R
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

| PLAZAK<br>PLAZAS | PREZIOA PLAZAKO ETA EGUNEKO<br>(BEZik GABE)<br>PRECIO/PLAZA DIA<br>(Exento IVA) | EGUNAK<br>DÍAS | OKUPAZIOA<br>OCUPACIÓN | PREZIO GUZTIRA<br>(BEZik GABE)<br>PRECIO TOTAL<br>(Exento IVA) |
|---|---|---|---|---|
| 20 | 117,51€ | 365 | 100% | 857.823,00 € |

Bizkaiko Foru Aldundiak gastuen aurrekontuko: Organikoa 0303, egitaraua 231106, ekonomikoa: 23708, ekitaldia 2026, proiektuaren zenbakia: 2009/0045 zainpetuko du hitzarmen honek eragingo duen gastuari aurre egiteko behar den gehieneko kopurua. Aurrekontuan zainpetutako kopuru horren estaldura nahikoa izan behar da plaza eta eguneko aplikatu beharreko gehieneko prezioa eta Foru Aldundiarentzat erreserbatutako plaza guztiak (baliagarri daudenen arabera) estaltzeko.

La Diputación Foral de Bizkaia consignará en la partida presupuestaria: Orgánico 0303, programa 231106, económico 23708, ejercicio 2026, nº proyecto 2009/0045 la cantidad máxima necesaria para hacer frente al compromiso de gasto, que se derive del presente convenio, de forma que la cobertura de dicha consignación presupuestaria se extienda al precio por plaza/día que pudiera resultar de aplicación y a la totalidad de las plazas reservadas a la Diputación Foral, en función de la disponibilidad de las mismas.

## 2. Egoitza-zerbitzua ordaintzeko modua.

Gizarte Ekintza Sailak okupatutako plazen kostua hilero ordainduko dio Fundazioari, faktura egokia aurkeztu ondoren, hirugarren klausulako e) atalean ezarritako prezioen arabera..

## 2. Forma de pago del servicio residencial.

El Departamento de Acción Social abonará mensualmente a la Fundación, previa presentación de la correspondiente factura, el coste de las plazas ocupadas, en función del precio previstos en el apartado e) de la cláusula tercera.

## ZAZPIGARRENA.- HITZARMENAREN INDARRALDIA

Hitzarmen hau **2026ko urtarrilaren 1etik 2026ko abenduaren 31 arte egongo da indarrean**, atzeraeragintzeko ondorioekin.

## SÉPTIMA. - VIGENCIA DEL CONVENIO.

La vigencia del presente convenio se extenderá **desde el 1 de enero de 2026 hasta el 31 de diciembre de 2026,** con efectos retroactivos.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 5Q9S-1RED-MVTI-MU4R
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

## ZORTZIGARRENA. JARRAIPEN BATZORDEA

Urriaren 1eko 40/2015 Legearen 49.f) artikuluak ezarri duenarekin bat Batzorde bat eratuko da. Batzorde horretan Bizkaiko Foru Aldundiaren-Gizarte Ekintza Sailaren bi eskuorde eta Fundazioaren bi eskuorde egongo dira.

Erabakiak alderdien arteko adostasunez hartuko dira.

Batzordea urtean behin, gutxienez, batzartu daiteke. Hauek izango dira batzordearen eginkizun nagusiak:

a) Alderdien konpromisoak direla-eta sortzen diren interpretazio-zalantzak argitzea.

b) Hitzarmena interpretatzea eta hura betetzen dela zaintzea, eta ez-betetze posibleak mailakatzeko irizpideak ezartzea.

c) Hitzarmenaren funtzionamenduaren jarraipen eta ebaluazioa egitea, eta egokitzat jotzen diren aldaketa-proposamenak egitea.

d) Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean ezarritakoa aplikatzean egokitu dakiokeen beste edozein eginkizun.

Batzordea alderdietako edozeinek proposatuta bilduko da, eta bere funtzionamendua, hitzarmen honetan ezarrita ez dagoen guztian, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen araberakoa izango da.

## OCTAVA. COMISION DE SEGUIMIENTO

En cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 49.f) de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, se constituirá una Comisión que estará integrada por dos representantes de la Diputación Foral de Bizkaia-Departamento de Acción Social y dos representantes de la Fundación.

Las decisiones de la Comisión se tomarán por consenso entre las partes.

La Comisión podrá reunirse, al menos, una vez al año y sus funciones generales serán:

a) Resolver las diferencias de interpretación que pudieran surgir respecto de los compromisos de cada una de las partes.

b) Interpretar y vigilar el cumplimiento del convenio, así como establecer los criterios para determinar la graduación de los posibles incumplimientos.

c) Realizar el seguimiento y evaluación de su funcionamiento y formular las propuestas de modificación que consideren oportunas.

d) Cualquier otra que le pudiera corresponder en aplicación de lo previsto en la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

La Comisión se reunirá a propuesta de cualquiera de las partes y su funcionamiento, en lo no previsto en el presente Convenio, se regirá por la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 5Q9S-1RED-MVTI-MU4R
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

BEDERATZIGARRENA.- HITZARMENAREN ALDAKETA.

Alderdi sinatzaileek edozein unetan aldatu ahal izango dute hitzarmen honetan ezarritakoa, alderdien artean adostuta.

NOVENA. - MODIFICACIÓN DEL CONVENIO.

Las partes firmantes podrán modificar los términos del presente convenio en cualquier momento, de mutuo acuerdo.

HAMARGARRENA.- AZKENTZEKO KAUSAK.

Hitzarmen honetan ezarritako azkentze arrazoiez gainera hitzarmena aldez aurretik azkenduko da ondoko kasuetan ere:

a) Hitzarmenaren indarraldia igarotzea.

b) Sinatzaile guztiek aho batez adostea.

c) Sinatzaileetako batzuek beren gain hartzen dituzten eginbeharrak eta konpromisoak ez betetzea.

Kasu honetan, alderdi sinatzaileetako edozeinek agindeia egin ahal izango dio beharkizunen bat bete ez duen alderdiari, epe jakin baten barruan betegabetzat jo diren eginbeharrak edo konpromisoak bete ditzan. Hitzarmenaren betearazpena jarraitu, zaindu eta kontrolatzeko mekanismoaren arduradunari eta gainerako alderdi sinatzaileei jakinaraziko zaie arestion aipatu den agindei hori.

Baldin eta agindeian adierazten den eperako eginbeharra edo beharkizunak betetzen ez badira, agindeia igorri duen alderdiak alderdi sinatzaileei jakinaraziko die hitzarmena suntsitzeko karia gertatzen dela, eta hitzarmena suntsitutzat joko da.

DÉCIMA. - CAUSAS DE RESOLUCIÓN.

Además de las causas previstas en las cláusulas del presente convenio, serán causas de extinción las siguientes:

a) El transcurso del plazo de vigencia del convenio.

b) El acuerdo unánime de todas las partes firmantes.

c) El incumplimiento de las obligaciones y compromisos asumidos por alguna de las partes firmantes.

En este caso, cualquiera de las partes podrá notificar a la parte incumplidora un requerimiento para que cumpla en un determinado plazo con las obligaciones o compromisos que se consideran incumplidos. Este requerimiento será comunicado al responsable del mecanismo de seguimiento, vigilancia y control de la ejecución del convenio y a las demás partes firmantes.

Si trascurrido el plazo indicado en el requerimiento persistiera el incumplimiento, la parte que lo dirigió notificará a las partes firmantes la concurrencia de la causa de resolución y se entenderá resuelto el convenio.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 5Q9S-1RED-MVTI-MU4R
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Hitzarmena arrazoi hori dela eta suntsiarazteak sortutako kalteen ordaina eman beharra ekar dezake. Edozelan ere, alderdi biek adostasunez adostuko dituzte suntsiarazpen honek erabiltzaileei ahalik eta kalterik txikiena sor diezaien egin beharreko jarduketak.

d) Hitzarmenaren deuseztasuna adierazten duen epai-erabakiaren bidez.

e) Hitzarmenean edota beste lege batzuetan aurreikusirik dauden eta arestion aipatu direnen bestelakoa den edozein kariren bitartez.

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 52 artikuluak ezartzen duen bezala, hitzarmena betetzearen eta suntsiaraztearen ondorioz, likidazioa egingo da, helburua delarik alderdi bakoitzaren obligazioak eta konpromisoak zehaztea.

<u>HAMAIKAGARRENA</u>.- JURISDIKZIO ESKUDUNA

1. Hitzarmena garatu eta betearaztean alderdien artean sortzen diren auziak administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren mende jarriko dira, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean edo, hala badagokio, araudi zibilean xedatutakoaren arabera.

2. Nolanahi ere, alderdiek konpromisoa hartzen dute zortzigarren klausulan aurreikusitako hitzarmen hau Jarraitzeko Batzordearen aurrean izan dezaketen edozein ezberdintasun fede onez planteatzeko, ekintza judizialak gauzatu aurretik.

La resolución del convenio por esta causa podrá conllevar la indemnización de los perjuicios causados. En todo caso, ambas partes, por mutuo acuerdo acordarán las actuaciones a realizar para garantizar que esta resolución implique el menor perjuicio posible a las personas usuarias.

d) Por decisión judicial declaratoria de la nulidad del convenio.

e) Por cualquier otra causa distinta de las anteriores prevista en el convenio o en otras leyes.

El cumplimiento y la resolución del convenio darán lugar a la liquidación con el objeto de determinar las obligaciones y los compromisos de cada una de las partes, de acuerdo con lo que establece el artículo 52 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

<u>DÉCIMOPRIMERA</u>. - JURISDICCIÓN COMPETENTE.

1. Las cuestiones litigiosas que surjan entre las partes durante el desarrollo y ejecución del convenio, se someterán a la jurisdicción contencioso-administrativa, conforme a lo dispuesto en la Ley 29/1998, de 13 de julio, Reguladora de la Jurisdicción Contenciosos-Administrativa, o por la normativa civil, en su caso.

